

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Ugao-Miraballesko Udala

Ayuntamiento de Ugao-Miraballes

2019





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	9
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	10
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	10
III.2 Langileria.....	10
III.3 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	11
III.4 Kontratazioa.....	11
III.5 Bestelakoak	12
IV. FINANTZAREN ANALISIA.....	13
V. URTEKO KONTUAK.....	16
ERANSKINAK	19
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera.....	19
A.2 Kontabilitatea eta aurrekontuak	19
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	20
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak	21
A.5 Langileen gastuak.....	22
A.6 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa	23
A.7 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	24
A.8 Inbertsio errealak eta ibilgetua.....	24
A.9 Zordunak	25
A.10 Hartzekodunak	26
A.11 Hirigintzako jarduerak eta plangintza.....	26
A.12 Kontratazioa.....	27
ALEGAZIOAK	29



ABREVIATURAS	43
I. INTRODUCCIÓN.....	45
II. OPINIÓN.....	46
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	46
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales	47
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	48
III.1 Presupuesto y contabilidad	48
III.2 Personal.....	48
III.3 Transferencias y subvenciones concedidas	49
III.4 Contratación	49
III.5 Otros	50
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	51
V. CUENTAS ANUALES	54
ANEXOS	57
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	57
A.2 Contabilidad y presupuestos.....	57
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	58
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	59
A.5 Gastos de personal	60
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios.....	61
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas	62
A.8 Inversiones reales e inmovilizado.....	62
A.9 Deudores.....	63
A.10 Acreedores	64
A.11 Actuaciones urbanísticas y planeamiento	64
A.12 Contratación	65
ALEGACIONES	67



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

AMAS	Autonomia Sistema eta Mendekotasunari Arreta.
AO	Administrazio Orokorra.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
BLH	Bizkaiko Lurralde Historikoa.
BPG	Barne Produktu Gordina.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EB	Europar Batasuna.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
EIOZ	Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga.
EPE	Enplegu Publikoaren Eskaintza.
FA	Foru Araua.
GLL	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra.
HHS	Hiri-hondakin solidoak.
HILBIZ	Hiri izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LOP	Lurraren Ondare Publikoa.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.
PGPN	Publikotasunik Gabeko Prozedura Negoziatua.
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
TMIZ	Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga.
TTEE	Toki Entitateak.
ZPI	Zentro Publiko Integrala.



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko Bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Ugaoko Udalaren 2019ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren ondarearen emaitza ekonomiakoaren kontua eta oroitidazkia ez ezik, aurrekontuaren likidazioa ere bai.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Alabaina, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak Txosten honen III. Idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Ugaoko udalerriak 2019ko urtarrilaren 1ean 4.152 biztanle ditu eta Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoaren (uraren ziklo osoaren kudeaketa) eta Haurreskolak Partzuergoaren (haur eskolen kudeaketa) partaide da . Gainera, % 11,11ko partaidetza du Udaltalde XXI Nerbioi Ibaizabal SL sozietatean (ingurumenaren kudeaketa eta eskualdearen garapen iraunkorra).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA

1. Zerbitzu baten kontratazioa (4. espedientea A.12n), 2,5 milioi euroan esleitutakoa, ez zitzaion arautze harmonizatuari meneratutako kontratuentzat aurreikusitako izapideari lotu eta ez zen DOUEn argitara eman.
2. 2019ko ekitaldian Udalak kontratu bati zegozkion gastuak (2. espedientea A.12an), 106.722 eurorenak, kontratuaren indarraldia amaitua zegoela egikaritu zituen, beste lehiaketarik batere deitu gabe.
3. Udalak 2019ko ekitaldian etxez etxeko laguntza zerbitzuari zegozkion gastuak, 92.583 euro, nahitaezko kontratazio-prozedura izapidetu gabe egikaritu zituen. Adierazitako prestazioa esleitzeko deitutako azken lehiaketatik eratorritako kontratuaren indarraldia 2008an amaitu zen.

Epaitegi honen ustetan, Ugaoko Udalak, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2019ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

- Hona hemen Udalaren Gastu Orokorren Diruzaintza Geldikinean eta Ondare Garbian eragina duten doiketak 2019ko abenduaren 31n:

KONTZEPTUA	GODG	Euroak milakotan		
		ONDAREKOA		
		AKTIBOA	PASIB.	ONDARE GARBIA
A.4 Ingresos por subvenciones contabilizados en exceso.....	(22)	(22)	-	(22)
A.4 Kontabilizatu gabeko Udalkutxa 2019aren likidazioa.....	83	83	-	83
A.10 Aurrekontuari egotzi beharreko aurrekontuz kanpoko saldoak.....	189	-	(189)	189
GUZTIRA	250	61	(189)	250

- Ez dago euskarri egoki eta behar hainbatekorik jakiteko Udalaren 2019ko abenduaren 31ko Balantzearen ibilgetu ez finantzarioko eta amortizazio metatuko saldoek jasotzen duten ondasunen eta eskubideen egiazko egoera, ezargarriak zaizkien balorazio-printzipio eta -arauei jarraikiz (ikus A.8).

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Ugaoko Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan 2019ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten du; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, arautegian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2019ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra ez zen behin betiko onartu 2018ko abenduaren 31 baino lehenago, ezargarria zaion aurrekontuko araudiak agintzen duen moduan (ikus A.2).
- Ekitaldiko finantzaketa-desbideratzeak 2.728 euro izan dira eta ez 25.985 euro; horrek esan nahi du aurrekontuaren emaitza doitu likidazioan aurkeztutakoa baino 23.257 euro handiagoa dela. Zuzenketa horiek ez dute eraginik Gastu orokorretarako diruzaintza geldikinean.
- Aurrekontuetan aurreikusi gabeko eta jasotako dirulaguntzen kasuan, Udalak dagozkion eskubide aitortuak Tasak eta bestelako sarrerak kapituluan erregistratzen ditu 2018ko eta 2019ko ekitaldietan, kapitulu horretan oker kontabilizatutako dirulaguntzen sarrerak, hurrenez hurren 206.508 eta 31.423 euro izan ziren.
- 2019ko ekitaldian, Udaleko funtzionarioei eta lan-kontratupeko langileei zegozkien aurrekontuko plantilek ez zituzten kreditu-zuzkidurak zerrendatzen talde horietako bakoitzari ordaingarriak zitzaizkien kontzeptuen arabera. Aurrekontuko langileen eranskinak ere ez zuen adierazitako informazioa jasotzen.

III.2 LANGILERIA

- Idazkaritza bigarren mailako modura sailkatua duten udaletan Idazkaritza eta Kontu-hartzailetzako bi postu bereizi izan behar dira, nazio mailan jarduteko gaituta dauden toki-administrazioko funtzionarioentzat gordeak eta gainera, Diruzaintza izeneko lanpostu bat existitu behar da. Udalaren Lanpostu zerrendak Idazkari-kontu-hartzailearen lanpostu bakarra besarkatzen du eta ez du Diruzaintzakoa aurreikusten.
- Ezargarria den araudiaren arabera, tokiko Kontu-hartzailetzari dagokio Udalbatzari toki-erakundearen beraren egonkortasun-helburua betetzeari buruzko txosten bat aurkeztea. Ugaoren kasuan, dagokion txostena udal teknikari batek izenpetu zuen.



III.3 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

- Orokorrean ez da egiaztatzen dirulaguntzen onuradunak egunean daudenik zerga eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan.

III.4 KONTRATAZIOA

Kontratazio-espeditenteak (ikus A.12)

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden sei kontratu aztertu ondoren, honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu:

- 590.508 euroan esleitutako kontratu batean (1 eta 6 zk. espeditenteak), ez da ageri kontu-hartzaitzaren alde aurreko fiskalizaziorik, ez eta kontratazioaren oroitidazki justifikagarrikerik ere.
- Guztira 3,8 milioi euroren zenbatekoan esleitutako bost kontratutan (2, 3, 4, 5 eta 6 espeditenteak) honako akats hauek azaleratu dira pleguetan barne hartutako esleipen irizpideetan:
 - Bi kasutan (2. eta 6. espeditenteak), eskaintzak baloratzean puntuak esleitu ziren, hurrenez hurren, enpresa lizitatuak zuten langileen kudeaketa-politika orokorragatik eta kalitate-ziurtagiriak edukitzeagatik; ordea, horiek ez ziren eskaintzak baloratzeko irizpide onargarriak, ez baitzeuden zuzenean lotuta kontratuaren xedearekin.
 - Adierazitako kontratuetarik lehenengoak, gainera, esleipen irizpide modura hobekuntza teknikoak jasotzea barne hartzen zuen, zein elementuren gainean eta zein baldintzatan baimentzen zen horiek aurkeztea zehaztu gabe.
 - Lau kontraturen pleguetan barne hartutako formula aplikatzean (3, 4, 5 eta 6 zk. espeditenteak), prezio batek lizitazio tipoa berdinduz gero, puntuazio positiboa eskuratuko luke eskaintza ekonomikoaren irizpidea baloratzean.
- 2,5 milioi euroan esleitutako kontratu batean (4. espeditentea), kontratua gauzatzeko epeak eta onartutako luzapen kopuruek gainditu egin zituzten zerbitzu-kontratuen iraupenerako legez ezarritako mugak.
- Kontratu horretan ez dugu uste behar hainbat justifikatu denik balio-judizio baten arabera kuantifikatuta dauden irizpideen balorazioa. Beste kontratu batean (2. espeditentea), 426.888 euroan esleitutakoan, aipatutako irizpideei emandako haztapena kontuan hartuta, organismo tekniko espezializatu bati eman zitzaion haren ebaluazioa, baina organismo horren izendapena ez zegoen jasota administrazio-klausula zehatzen agirian, eta ez zen argitaratu kontratatzailearen profilean. Gainera, eskaintza ekonomikoaren gutun-azala ebaluazio hori egin aurretik ireki zen.
- Kontratu batean (4. espeditentea), esleitutako prezioa, bai esleipen-ebazpenean bai formalizatutako kontratuan, urte bateko zenbatekoari zegokion, eta kontratua gauzatzeko epea, guztira, hiru urtekoa zen. Behin betiko bermearen zenbatekoa kalkulatzeko, era berean, urte-sari bakar bat hartu zen kontuan, bai kontratu horren



kasuan, bai beste baten kasuan ere (3. espedientea), 181.932 euroan esleitua, 4 urteko egikaritze-epearekin.

- 182.952 euroan esleितutako obra-kontratu bat (5. espedientea) egikaritzeko epe partzialetan berandutzak izan dira kontratua betetzean eta ez da epe luzaketarik batere bideratu edo ez zaio kontratistari zehapenik batere ezarri.

Administrazio kontratazioko espedienterik gabeko gastuak eta beste alderdi batzuk

- 2019ko ekitaldian Udalak zerbitzu bati zegozkien gastuak egikaritu zituen -119.205 euro-kontratuaren indarraldia amaitu ostean harik eta esleipen berriak indarrean sartu arte. Aurreko kontratuaren epemuga iritsi baino lehen hasi ziren kontratu berriaren izapideak egiten (6. espedientea A.12an).
- Instalazio elektrikoak mantentzeko gastuak -34.658 euro- kontratu-estaldurarik gabe egin dira, kontratuak gehieneko iraupena gainditu duelako, prozedura ireki sinplifikatu laburtuaren bidezko beste lizitazio baterako deialdirik egin gabe.
- Pertsona fisiko batekin hirigintzako aholkulari-kontratuaren xedea plantilla organikokoak diren lanpostuen egiteko orokor propioari dagokio, eraginpeko zerbitzuaren kudeaketa arruntari buruzkoak, eta esleipendunak egiteko horiek 2014az geroztik bete ditu; kontratu horrek ekitaldian 20.764 euroren gastua eragin du.

III.5 BESTELAKOAK

- Udalak ez du Udalbatzak onartutako ondasun eta eskubide guztien inbentariarik, ez eta Lurraren Ondare Publikoa osatzen duten ondasun eta baliabideenik ere.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera honako taula honetan dago zehaztua.

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2017(*)	2018(*)	2019	2017	2018	2019
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	1.194	1.587	1.294	289	385	312
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.)	2.662	3.055	3.323	644	741	800
Ondare sarrerak (5. kap.)	8	6	4	2	1	1
A. Sarrera arruntak	3.864	4.648	4.621	935	1.127	1.113
Langile-gastuak (1. kap.).....	1.224	1.219	1.294	296	296	312
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.)	2.280	2.198	2.335	552	533	562
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.)	170	241	269	41	58	65
B. Funtzionamendu-gastuak	3.674	3.658	3.898	889	887	939
Aurrezki gordina (A-B).....	190	990	723	46	240	174
- Finantza gastuak (3. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Emaitza arrunta.....	190	990	723	46	240	174
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Aurrezki garbia	190	990	723	46	240	174
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Jasotako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....	97	136	134	24	33	32
- Inbertsio errealak (6. kap.)	172	556	243	42	135	58
- Emandako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Kapitalezko eragiketen emaitza	(75)	(420)	(109)	(18)	(102)	(26)
Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.).....	115	570	614	28	138	148
Diruzaintza Geldikina	331	1.128	1.688	80	274	406
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina	294	1.106	1.661	71	268	400
Zorpetzea.....	-	-	-	-	-	-

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: 2018an % 20 egin dute gora aurreko ekitaldiaren aldean eta 2019an % 1era iristen ez den beheraldia erregistratu du; honenbestez, aztertutako aldiaren guztira % 20 inguruko bariazioa positiboa izan dute. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Sarrera hauek % 33 egin dute gora 2018an eta % 18 behera 2019an, aztertutako aldiko igoera guztira % 8tik gora izanik. 2018an izandako igoeran, funtsean, OHZren eta aurreikusi gabeko dirulaguntzen ondoriozko diru-sarrerak eragiten dute. Udalak tasen eta bestelako diru-sarreraren kapituluaren erregistratzen ditu diru-sarrera horiek (ikus III.1). OHZren kasuan, 2017ko ekitaldian indarrean sartu zen katastro-balioen eguneratzearen ondorio da igoera, zeinaren likidazioa 2018an kontabilizatu baitzen. Aurreikusi gabeko dirulaguntzei dagokienez, nagusiki, 2012-2016 aldiaren AMASetik atzeratutako diru-kopuruen erregularizazioari dagozkio, eta, neurri txikiagoan, enplegua sustatzeko dirulaguntzei.



- **Transferentzia eta dirulaguntza arruntak:** Sarrera hauek % 15eko igoera izan dute 2018an aurreko ekitaldiaren aldean eta berriz egin dute % 9 inguru gora 2019an, epe guztiaren bariazioa % 25era ekarriz. Bariazio hori zuzenean lotzen zaio zerga itunduetako partaidetzaren bilakaerari (Udalkutxa), aztertutako ekitaldi guztietan kapituluko sarrera guztien % 90 inguru egiten duela.

Funtzionamendu-gastuak: Aztertutako aldian % 6 inguruko igoera izan dute, igoera hori 2019ko ekitaldian gertatu delarik, izan ere 2018an gastuaren zifrak apenas duen bariaziorik aurreko ekitaldiaren aldean. Hona hemen alderdi esanguratsuenak aurrekontuko kapituluaren arabera:

- **Langile-gastuak:** Gastu hauek ez dute ia aldaketarik izan 2018an aurreko ekitaldiaren aldean, baina 2019an % 6 egin zuen gora, nagusiki, aplikatutako soldata-igoeraren ondorioz eta ekitaldi horretan onartutako lanpostuen balorazioaren ondorioz (ikus A.5).
- **Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa:** 2018an % 4 egin du behera aurreko ekitaldiaren aldean, nahiz 2019an % 6 igo den berriz; honenbestez, aztertutako aldian % 2ko bariazio positibo garbia izan du. 2018an nozitutako beheraldia, batik bat, ur-horniduragatikoa gastua murriztu izanari zor zaio eta Udaltalde 21 Nerbioi Ibaizabal SLri egindako ekarpenen zati bat ekitaldi horretan transferentzia arrunten kapituluaren kontabilizatzeari (ikus A.7). Egindako gastuaren igoerari dagokionez, eragin berezia dute HHSen bilketa eta tratamenduak eta ibilgetuaren konponketak, mantentze-lanak eta zaintzak.
- **Transferentzia eta dirulaguntza arruntak:** Kontzeptu honek eragindako gastuak % 58 egin du gora aztertutako aldian eta igoerarik handiena 2018ko ekitaldian berean gauzatu da; igoera hori nagusiki eragin dute GLLren bilakaerak eta aurreko paragrafoan aipatutako Udaltalde 21 Nerbioi Ibaizabal SLri egindako ekarpenen kontabilitateko irizpide-aldaketak.

Aurrezki gordina eta aurrezki garbia: Bi magnitudeek bat datoz Udala ez dagoela zorpetua erakustean. Saldoa positiboa izan da aztertutako aldiko hiru ekitaldietan; izan ere, 2018an gorakada handia izan zuen, eta 2019an, berriz, murrizketa, txikiagoa izan bazen ere; honenbestez, aldi horretako hazkunde osoa % 280tik gorakoa izan da, 2017ko ekitaldiko diru-sarrera arrunten gainean % 5 izatetik 2019an horien gainean % 16 izatera igaroz.

Kapital-eragiketen emaitza: Magnitude honek saldo negatiboak izan ditu aztertutako ekitaldi guztietan, nahiz horietako bakoitzean sortutako aurrezki garbiak estaltzen dituen kapital-eragiketen aipatutako defizitak.

Eragiketa ez-finantzarioen emaitza: Positiboa da aztertutako epe guztian eta gainera, goranzko bilakaera erakutsi du, % 400 baino gehiago igo delarik.



Diruzaintza Geldikina: Magnitude honen bilakaera positiboa izan da aztertutako aldian eta epe horretan % 40dik gorako igoera izan du. 2019ko ekitaldia 1,7 milioi euroren Diruzaintza geldikinarekin kitatu da eta HKEE honek egin dituen proposamenak aintzat hartuz gero, bai aipatutako magnitudea, bai Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina ere gehitu egingo lirateke 1,9 milioi euro egin arte.

Zorpetzea: Udalak ez du inongo zorpetze eragiketarik abian.

Ondorioa: Udalak egoera ekonomiko osasuntsua erakusten du, funtzionamendu normalari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu behar izan gabe aurre egin ahal izateko behar hainbat baliabide dituela. Hala ere, adierazi behar da 2020an diru-sarrerak nabarmen murriztea aurreikusi dela, bai bilketa propioa, bai zerga itunduetako partaidetza ere, COVID-19 pandemiaren ondorioz.

Aurrekontuaren egonkortasuna: Kontu-hartzaile lanak egiten dituen udal teknikariak txostena egin zuen 2019ko ekitaldian egonkortasun printzipioa, gastuaren araua eta zor publikoa bete dela egiaztatuaz; eta honako hau egiaztatu zuen aurrekontu-likidazioari zegokionez.

- Aurrekontuaren egonkortasunari buruzko helburua bete da, eragiketa ez finantzarioen superabita eskuratu baita.
- Gastuaren araua bete da, izan ere 2018ko ekitaldiaren aldean zenbakarria den gastuaren bariazioak ez zuen Espainiako ekonomiaren epe ertaineko BPGaren erreferentziazko hazkuntza tasa gainditu (% 2,7) eta negatiboa izan zen, gainera.
- Zor publikoaren helburua bete da, Udalak ez baitu zorrik.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

2019KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE KITAT	KOBRA. KOBRA.	KOBRA. GABEA	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1 Zerga zuzenak	A.3	822	-	822	860	771	89	% 105
2. Zeharkako zergak	A.3	24	-	24	34	34	-	% 142
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	361	-	361	400	368	32	% 111
4. Transferentzia arruntak	A.4	3.062	-	3.062	3.323	3.297	26	% 109
5. Ondare-sarrerak.....		1	-	1	4	(2)	6	% 400
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.4	68	77	145	134	63	71	% 92
8. Aktibo finantzarioak		-	374	374	-	-	-	E/E
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		4.338	451	4.789	4.755	4.531	224 (*)	% 108

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza-geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAINK. ORDAINK.	ORDAIN. GABE	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1. Langileen gastuak	A.5	1.401	29	1.430	1.294	1.267	27	% 90
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen kontr...	A.6	2.350	149	2.499	2.335	2.233	102	% 93
4. Transferentzia arruntak	A.7	266	27	293	269	259	10	% 92
6. Inbertsio errealak	A.8	321	246	567	243	191	52	% 43
GASTUAK GUZTIRA		4.338	451	4.789	4.141	3.950	191	% 86

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	BALIOG.	KOBRA./ ORDAIN.	AZKEN ZORRA
		ZORRA			
Kobratzeko dauden saldoak	A.9	495	66	174	255
Ordaintzeko dauden saldoak		374	13	361	-
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(53)		



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	4.755
Obligazio aitortuak.....	(4.141)
EKITALDI ARRUNTAREN AURREKONTUKO EMAITZA	614
EKITALDI ITXIEN AURREKONTU EMAITZA	(53)
Finantzaketako desbideratzeak.....	(26)
GODG bidez finantzatutako gastuak	211
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	746

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
2019/12/31N KUTXAKO IZAKINA (A)	1.924
KOBRAZTEKO DAUDEN SALDOAK (ikus A.9) (B)	480
2019ko ekitaldian kobratzekoa	224
Ekitaldi itxietan kobratzekoa	255
Aurrekontukoak ez diren beste hainbat eragiketekoak	1
ORDAINTZEKE DAUDEN OBLIGAZIOAK (ikus A.10) (C)	500
2019ko ordaintzekoak	191
Ekitaldi itxietako ordaintzekoak	-
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak	309
ZALANTZAZKO KOBAGARRITASUNEN SALDOAK (ikus A.9) (C)	216
DIRUZAINZA GELDIKINA GUZTIRA (F=A+B-C+D)	1.688
Atxikitako finantzaketa-soberakina	27
GODG	1.661
ZORPETZEA 19.12.31n	-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEAK 2019 ETA 2018ko abenduaren 31n				Euroak milakotan			
	ERANSKINA	2019	2018		ERANSKINA	2019	2018
AKTIBO EZ ARRUNTA		11.883	12.548	ONDARE GARBIA		13.563	13.674
Ibilgetu ukiezina.....	A.8	1.527	1.562	Ekarrিতako ondarea.....		2.773	2.773
Ibilgetu materiala.....	A.8	10.356	10.986	Sortutako ondarea.....		10.414	10.550
				Dirulag. emaitzetara egozteke		376	351
				PASIBO EZ-ARRUNTA		-	463
				Epe luzeko zorrak		-	463
AKTIBO ARRUNTA		2.188	1.798	PASIBO ARRUNTA	A.10	508	209
Zord. eta kobr. bst knt b.	A.9	264	281	Epe motzeko zorrak		290	-
Eskud. eta best. akt. baliok.	(*)	1.924	1.517	Hartzed. eta ordain. bst knt b.		218	209
AKTIBOA, GUZTIRA		14.071	14.346	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA		14.071	14.346

(*) 2019ko ekitaldi itxierako saldoa kontu korranteetako gordailuei dagokie nagusiki, diruzaintza-geldikinak kolokatzeko finantza-kontuetan dauden 150.000 euro eta eskudiruzko 452 euro izan ezik.

2019KO ETA 2018KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA		Euroak milakotan	
		2019	2018
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak.....		1.210	1.339
Jasotako transf. eta dirulaguntzak.....		3.433	3.084
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa.....		19	19
Kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk.....		59	228
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA		4.721	4.670
Langileen gastuak.....		(1.333)	(1.267)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....		(269)	(241)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk.....		(2.296)	(2.150)
Ibilgetua amortizatzea.....		(908)	(901)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA		(4.806)	(4.559)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)		(85)	111
Arruntak ez diren beste partida batzuk.....		13	9
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK		(72)	120
Sarrera finantzarioak.....		3	5
Gastu finantzarioak.....		-	-
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak.....		(1)	(25)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK		2	(20)
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)		(70)	100

ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA

Ugaoko Udala Administrazioiko toki-erakundea da, oinarritzko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta apirilaren 7ko 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena. Aipatutako legeek beren artikuluetan udalek ematen dituzten eskumen edo zerbitzu publikoak definitzen dituzte, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzeko zerbitzua, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina, kultura- eta kirol-jarduerak, etab.

Udalek zerbitzua zuzenean edo zeharka eman ditzakete. Udalak berak kudeaketa zuzena gauza dezake edo toki entitate autonomoak, merkataritzako sozietate publikoak, mankomunitateak eta partzuergoak sortuta.

A.2 KONTABILITATEA ETA AURREKONTUAK

2019ko ekitaldirako aurrekontua 2019ko otsailaren 26ko Udalbatzak onetsi zuen hasiera batean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean urte bereko martxoaren 7an eman zen argitara. Jendaurrean jartzeko epea erreklamaziorik jaso gabe igaro ondoren, behin betiko onartutako aurrekontua 2019ko apirilaren 9an eman zen argitara BAOn.

Hona hemen, 2019ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

KAPITULUAK	Euroak milakotan			
	KREDITU TXERTAKETA	KREDITU TRANSF.	KREDITU GEHIGAR.	GUZTIRA
1. Langileen gastuak	-	(48)	77	29
2. Ondasun arruntean eta zerbitz. gastuak.....	-	32	117	149
4. Transferentzia arruntak	-	(1)	28	27
6. Inbertsio errealak	157	17	72	246
GASTUAK GUZTIRA	157	-	294	451

Adierazitako aurrekontuko ia aldaketa gehienak finantzatu ziren Diruzaintza Geldikin erabilgarriaren zati bat baliatuta 2018ko ekitaldi itxieran eta Lanbideko enplegua sustatzeko laguntzen bidez, 373.812 euroren eta 77.398 euroren zenbatekoan, hurrenez hurren.

Ekitaldian zehar aurrekontua aldatzeko zazpi espediente izapidetu dira, guztiak ere Alkatetzaren Dekretu bitartez onartutakoak. 4,3 milioi euroren hasierako aurrekontua % 10 igo zen eta behin betiko aurrekontuak 4,8 milioi euro egin zituen. Hona hemen aurrekontuko aldaketa esanguratsuenak:

	Euroak milakotan
PROIEKTUA	ZENBATEKOA
Paisaiaren ekintza-plana	116
Beste txiki batzuk	41
TXERTATUTAKO KREDITUAK GUZTIRA	157
Enplegua sustatzek ekintzei dagozkien langile-gastuak.....	77
Ibilgetuaren konponketak, mantentze lanak eta zaintza	61
Ugaoko Ikastetxe Pribatu Integratuan eraldaketa gunee berriaren instalakuntza	50
Beste txiki batzuk	106
KREDITU OSAGARRIAK GUZTIRA	294

2019ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2020ko martxoaren 4ko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra urte bereko ekainaren 30eko Udalbatza bitartez.

A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2019ko ekitaldian zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarreren kontzeptuan kitaturiko eskubideen xehakapena:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ESKUBIDE KITATUAK
OHZ.....	512
TMIZ	240
HILBIZ	56
JEZ.....	52
ZERGA ZUZENAK GUZTIRA	860
EIOZ.....	34
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	34
Zaborrak bildu eta desegite-zerbitzuaren tasa eta estolderia tasa.....	225
Lurraren, lur azpiaren edo airearen aprobetxamendu berezia enpresa hornitzaileen alde	60
Aurrekontuan aurreikusitako gabeko dirulaguntzek eragindako sarrerak.....	31
Beste txiki batzuk.....	84
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	400
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	1.294

BFAk Ugaoko Udaleri OHZ eta JEZ kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko zerbitzuak ematen dizkio, bai borondatezko aldirian, bai premiamendukoan, hurrenez hurren 1989 eta 1992 urteetan formalizatutako lankidetzak-hitzarmenen indarrez.

Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoak Ugaoko udalerrian uraren hornidura eta saneamendu zerbitzua ematen du, eta zerbitzuak eragindako gastuak eta sarrerak bere gain hartzen ditu. Halaber, Udalak Partzuergoari laga dio Hiri hondakin solidoak jaso, tratatu eta desegiteagatik tasa eta estolderia-tasa kobratzeko kudeaketa-lana.

Erantsitako taulan zerrendatutako gainerako zerga, tasa eta sarrerei dagokienez, Udalak bere gain hartu du horien kudeaketa borondatezko aldiari eta 2015eko urriaz geroztik lankidetzaz hitzarmen bat du BFArekin betearazte bidean diru-bilketa egiteko.

A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2019ko ekitaldian transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalezkoen kontzeptuan kitatutako eskubideak honako hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ARRUNTAK	KAPITALEZKOAK
Estatuarenak	9	-
EAErenak	65	80
AO: GLL.....	54	-
Lanbide: enplegu sustapena.....	-	77
EAEren askotariko beste dirulaguntza batzuk.....	11	3
BLHrenak	3.249	39
BFA: Zerga itunduetan partaidetza Udalkutxa.....	2.945	-
BFA: SAAD eta Gizartekutxa.....	175	-
BFA: Gizarte Zerbitzuen Karteraren aparteko funtsa.....	38	-
BFA: Plangintza orokorreko tresnak garatzea.....	-	30
Arakaldo, Arrankudiaga eta Zeberioko Udalak: Gizarte zerbitzuekin hitzarmenak.	74	-
BLHren askotariko beste dirulaguntza batzuk.....	17	9
EBrenak	-	15
GUZTIRA	3.323	134

Lanbideren enplegua sustatzeko dirulaguntzen zati bati dagokionez (22.229 euro), ekitaldi itxieran funtsak jaso gabe zeuden eta diruz lagundutako gastuak gauzatu gabe; beraz, ez zegokion horien eskubideak aitortzea (ikus II.2).

Zerga itunduen kontzeptuan aitortutako sarrerek 2018ko urteari dagokion Udalkutxako behin betiko likidazioaren zenbatekoa barne hartzen dute, Udalaren alde 161.738 euro dena. Fiskalizazio-gai izan den ekitaldiaren behin betiko likidazioa, hau ere positiboa 83.191 euroan, kontularitzan 2019ko ekitaldiari egotzi zaio (ikus II.2).



A.5 LANGILEEN GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehakapena 2018ko eta 2019ko ekitaldietako aurrekontuaren likidazioan, LZn jasotako lanpostu kopurua eta 2019ko abenduaren 31ko plantilla:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	OBLIGAZ. AITORT. 2019	OBLIGAZ. AITORT. 2018	LANPOSTU KOP.	
			LZ	19/12/31 PLANTILLA
Udalkideen ordainsariak	57	57	E/E	1
Funtzionarioen ordainsariak.....	518	472	13	(1) 11
Lan kontratupeko langileen ordainsariak.....	285	289	10	(2) 12
Enplegu planetako lan kontratupeko langileen ordainsariak.....	115	117	E/E	7
Gizarte Segurantza	277	239		
Beste gizarte-gastu batzuk.....	42	45		
LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA	1.294	1.219	23	31

(1) bitarteko 3 funtzionario barne hartzen ditu.

(2) Aldi baterako kontratua duten 4 langile barne hartzen ditu.

Ordainsariak

Udalbatzak, 2019ko uztailaren 30ean, langileen ordainsariak % 2,25 handitzea erabaki zuen, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta % 0,25eko igoera gehigarria aplikatzea, 2019ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, Sektore Publikoaren eremuan ordainsarien arloko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 21eko 24/2018 Errege lege-dekretuan xedatutakoaren arabera.

Adierazitako datan, Udalbatzak kanpoko enpresa batek egindako LZ eta horren balorazioa ere onartu zituen, zeinak helburu horrekin Udalarekin kontratua izenpetu baitzuen 2017ko urriaren 13an.

LZ eta plantilla

2019ko ekitaldian izan diren plantillako mugimenduak ondotik laburbildu ditugu:

	ALTAK	BAJAK
Bitarteko funtzionarioak	1	1
Langile lan kontratudun finkoak	-	(*) 1
Aldi baterako lan-kontratuko langileak	5	4
Enplegua sustatzeko aldi baterako lan-kontratuko langileak	7	5
GUZTIRA	13	11

(*) Erretiroa.

Udalbatzak 2019ko uztailaren 30ean egindako bileran 2019ko ekitaldirako udaltzaingoko agente plaza baten Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu zuen.



A.6 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Kapitulu honetan erregistratzen dira ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak. Hona hemen kontzeptu esanguratsuen xehakapena:

	Euroak milakotan
DESKRIBAPENA	OBLIGAZ. AITORTUAK
Errentamenduak	7
Ibilgetuaren konponketak, mantentze lanak eta zaintza	292
Azpiegitura eta ondasun orokorrak	182
Eraikin eta bestelako eraikuntzak	108
Beste ibilgetu bat	2
Bulegoko materiala	30
Hornidurak	253
Energia elektrikoa	152
Gasa	52
Ura	31
Bestelako hornigaiak.....	18
Komunikazioak	24
Aseguru primak	12
Hainbat gastu	223
Herri-jaiak	93
Kultur etxeko jarduera soziokulturalak	66
Bestelako hainbat gastu	64
Kanpoko enpresek egindako lanak	1.455
HHSen bilketa eta tratamendua	267
Kultur jarduerak, historia eta ingurumena interpretatzeko zentroa eta aisialdiko ikastaroak.....	252
Kale-garbiketa	207
Lorategi-zerbitzua	154
Jaro eta Arandiako kirol instalazioetan zerbitzu-ematea	142
Udal aretoen eta irakaskuntzako ikastetxe publikoen garbiketa	133
Azterketak eta lan teknikoak.....	98
Etxerako laguntza zerbitzua	93
Haur, gazte eta familiekin gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko zerbitzua.....	45
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk.....	64
Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak	39
GUZTIRA	2.335



A.7 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

2019ko ekitaldian, Udalak transferentziak eta dirulaguntza arruntak eta kapitalezkoak eman ditu; hona hemen xehakapena:

	Euroak milakotan
	ZENBATEKOA
TRANSFERENTZIAK	62
Udaltalde 21 Nerbioi Ibaizabal SL, 2019ko kudeaketa planaren finantzaketa (*).....	39
Talde politikoei transferentziak (*)	14
Beste txikiago batzuk (4 erakunde).....	9
IZENDUNAK	78
Ugao Kirol Kluba: 2019ko dirulaguntza (*)	23
Beste txikiago batzuk (24 onuradun).....	55
LEHIA	109
Gizarte larrialdietarako laguntzak (*)	90
Beste txikiago batzuk (2 dirulaguntza lerro).....	19
ZUZENAK (8 onuradun)	7
BESTELAKOAK	13
GUZTIRA	269

(*) Aztertutako transferentziak eta dirulaguntzak.

A.8 INBERTSIO ERREALAK ETA IBILGETUA

Hona hemen Udalaren aktibo ez arrunteko kontuen 2019ko kontu-mugimenduak:

	Euroak milakotan			
KONTZEPTUA	SALDOA 19/01/01	OBLIGAZ. KAP. 6	AMORTIZ. ZUZKID.	SALDOA 19/12/31
Ibilgetu ukiezina	1.562	42	(77)	1.527
Inbertsioa ikerketa eta garapenean	1.481	-	-	1.481
Beste ibilgetu ukiezin bat	329	42	-	371
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	(248)	-	(77)	(325)
IBILGETU MATERIALA	10.986	201	(831)	10.356
Lursailak eta ondare naturalak	544	-	-	544
Eraikuntzak.....	8.574	12	-	8.586
Azpiegiturak	286	76	-	362
Beste ibilgetu material bat.....	910	46	-	956
Abian dagoen ibilgetu materiala	10.966	67	-	11.033
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	(10.294)	-	(831)	(11.125)
LOP	-	-	-	-
AKTIBO EZ KORRONTEA GUZTIRA	12.548	243	(908)	11.883

Hasierako ibilgetuko saldoak eskritoretan eta ibilgetuaren elementuei buruz dagoen gainerako dokumentazio juridikoan jasotako datuetatik abiatuta eskuratu ziren, eta saldo horiek inbertsioekin eta dagozkien aurrekontu-kapituluetan kontabilitatean erregistratutako besterentzeekin eguneratu dira. Amortizaziorako zuzkidurak ere automatikoki erregistratzen



dira, baja emandako edo erabat amortizatutako ondasunak egon litezkeela kontuan hartu gabe, eta, horren ondorioz, ibilgetu materialaren epigrafe jakin batzuen amortizazio metatuak ibilgetu horren kontabilitate-balioa gaitzen du. Lurraren Udal Ondarea osatzen duten ondasunak ez dira balantzeko idazpuru bereizi batean kontabilizatzen, ez baitago horien inbentarioa besarkatuko duen ustiaketako erregistrorik.

A.9 ZORDUNAK

Hona hemen balantzearen aktibo arruntean erregistraturiko zordunen eta kobratzeko beste kontu batzuen saldoen xehakapena, 2019ko ekitaldi itxieran:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Aurrekontuko zordunak	479
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak.....	(216)
Zordun ez aurrekontukoak.....	1
ZORDUNAK ETA KOBATZEKO BESTE KONTU BATZUK EPE LABURRERA	264

Aurrekontuko zordunak

Hona hemen 2019ko abenduaren 31n kobratzeko dauden Udalaren aurrekontuko eskubideen osaera eta antzinatasunaren xehakapena:

Euroak milakotan					
KAPITULUAK	2016 eta lehen.	2017	2018	2019	GUZTIRA
Zerga zuzenak.....	180	23	29	89	321
Tasak eta bestelako sarrerak.....	9	5	9	32	55
Transferentzia arruntak	-	-	-	26	26
Ondare-sarrerak	-	-	-	6	6
Kapitalezko transferentziak	-	-	-	71	71
AURREKONTUKO ZORDUNAK GUZTIRA	189	28	38	224	479
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak					(216)
AURREKONT. ZORDUNAK GUZTIRA, ZUZKIDURARIK GABE					263

Udalak nekez egingarritzat edo ezinezkotzat jotzen ditu kontuetan sortu zirenetik 24 hilabetetik gorako antzinatasuna duten behar bezala aitortutako eskubideak (abenduaren 2ko 10/2003 FAREN 48.7 artikulua, BLHren toki erakundeen aurrekontuei buruzkoa).



A.10 HARTZEKODUNAK

Hona hemen Balantzeko pasiboko kontuen 2019ko abenduaren 31ko xehakapena:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
HARTZEKODUN EZ AURREKONTUKOAK	309
Jasotako fidantzak eta gordailuak	238
PFEZ kontzeptuan Ogasun Publiko hartzekoduna.....	55
Gizarte Segurantza hartzekoduna.....	5
Bestelako hartzekodun ez aurrekontukoak	11
AURREKONTUKO HARTZEKODUNAK	191
SARRERAK ITZULTZEAGATIKO HARTZEKODUNAK	8
PASIBOA, GUZTIRA	508

Jasotako fidantzen eta gordailuen saldoak itzultzeko eskatu ezin diren kopuruak barne hartzen ditu, guztira 189.211 eurorenak, aurrekontuan diru-sarrera gisa erregistratu beharko liratekeenak (ikus II.2).

A.11 HIRIGINTZAKO JARDUERAK ETA PLANGINTZA

Udal Harremanetarako eta Hirigintzako Sailaren urriaren 2ko 1477/2006 Foru Aginduaren bidez, Ugao udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioak behin betiko onartu ziren, nahiz eta onarpen hori zenbait alderdi zuzentzeari baldintzaturik egon. Aipatutako zuzenketak egin ondoren, Arau Subsidiarioen testu arauemailea 2007ko irailaren 28ko BAO n argitaratu zen. Ondoren, Arau Subsidiarioen zenbait aldaketa puntual eta garapen-tresna onartu dira.

2017ko urrian HAPO onartzeko eta haren ebaluazio estrategikoa egiteko beharrezkoak diren administrazio-jarduera guztiak idazteko, garatzeko, izapidetzeko eta horien jarraipena egiteko lanak kontratatu ziren (5. espediente A.12an). Kontratu horrek zazpi fase bereizten zituen eta azken laurak hasierako onespenera jendaurrean jartzeari, behin-behineko onespenerari, behin betiko onespenerari eta testu bateginari buruzkoak ziren. 2019ko urriaren 29an, Udalbatzak HAPOren hasierako onespeneraren erabakia hartu zuen (azaroaren 5eko BAO), baina erabaki horretan hainbat aldaketa egin dira, horietako bat funtsezkoa. Hori ikusita, HAPOri hasierako onespenera eman zaio berriz 2020ko uztailaren 28an egindako Udalbatzan (abuztuaren 19ko BAO).



A.12 KONTRATAZIOA

Kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak berrikusi ditugu, Udalak 3,6 milioi euroren zenbatekoan esleitutako sei kontraturen lagin bat hartuta:

KONTRATUA	ESLEIPENA		GASTUA 2019	AKATSAK	
	DATA	PROZED.ZENBATEK.		A	B
OBRAK					
1. Zorua eta oinezko eremuak berr. Udiarragan eta Arandian.....	ira-19	Ireki sinp.	59	28	A2
ZERBITZUAK					
2. Jaro eta Arandiako kirol instalazioetan zerbitzu-ematea (*).....	mar-13	Irekia	427	142	A3,5,6 B2
3. Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea Ugaon, Arakaldon, Arrankudiaga-Zollon eta Zeberion.....	mar-15.	Irekia	182	45	A3,6
4. Udal aretoen eta irakaskuntzako ikastetxe publikoen garbiketa, lorezaintza eta kale garbiketa.....	abe-15	Irekia	2.468	494	A1,3,4,5
5. HAPO onartzeko adm. jard. idatzi, garatu, izapidetu eta jarraitzea eta horren ebaluazio estrategikoa egitea.....	urr-17.	PGPN	183	31	A3 B1
6. Haur, nerabe eta gazteentzat kultura-zerbitzuak aisialdiko ikastaroak eta Historia Interpretatzeko Zentroa	api-19	Irekia	531	133	A2,3
GUZTIRA			3.850	873	

(*) Pleguen arabera, kontratuaren prezioa 4 kontzepturen araberakoa da: urteko zenbateko finkoa, kirol-jarduerengatik bildutako tasak, anbigüaren ustiapena eta emandako ikastaroen tarifak. Taulan jasotako zenbatekoa urteko zenbateko finkoari dagokio; izan ere, gainerako kontzeptuei lotutako diru-sarrerak zuzenean biltzen ditu esleipendunak.

AKATSAK	ESLEIPENA ESPEDIENTE KOP.	ESLEIPENA ZENBATEKOA
A IZAPIDETZEA ETA ESLEIPENA		
1. Arazte harmonizatuari lotutako kontratuentzat aurreikusitako izapidea ez betetzea (1).....	1	2.468
2. Ez dago pleguak onartu aurretiko Kontu-hartzaitzako txostenik (2).....	2	590
3. Pleguetan aurreikusitako esleipen irizpideei dagozkien akatsak (2).....	5	3.791
4. Betetzeko epeak legezko gehienekoa gainditzen du (2).....	1	2.468
5. Proposamenen balorazioari dagozkion akatsak (2).....	2	2.895
6. Prezioa edo bermea zehaztean urteko bakarra aintzatestea (2).....	2	609
B EGIKARITZA		
1. Kontratuaren betetzean atzerapenak (2).....	1	183
2. Kontratu-estaldurarik gabe egindako gastuak (1).....	2	(3) 107

(1) Ikus II.1 atala.

(2) Ikus III.4 atala.

(3) akatsak eragindako gastuen zenbatekoa.



UGAO-MIRABALLESKO UDALAREN ALEGAZIOAK

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak dioenez, Ugao-Miraballesko Udalak zentzuz bete du "2019ko ekitaldian bere jarduera ekonomiko eta finantzarioa arautzen duen lege-araudia", honako hauetan izan ezik:

- Udal egoitzen eta ikastetxe publikoen garbiketa, lorezaintza eta kale-garbiketa.
- El Jaro eta Arandiako kirol instalazioetako zerbitzuak.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua.

Hiru espedienteak 2019an baino lehenago hasi ziren, urte horretan egin baita auditoretza.

III.4 kontratazio-txostenari egindako alegazioetan azaltzen denez, 2021. urte honetan beste lizitazio bat egingo da honako kontratu hauetarako:

- Udal egoitzen eta ikastetxe publikoen garbiketa, lorezaintza eta kale-garbiketa.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua.

Eta 2021eko ekitaldian esleitu da kontratu hau:

- El Jaro eta Arandiako kirol instalazioetako zerbitzuak.

III.2 LANGILERIA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak azpimarratzen du erakundearen egonkortasun-helburua betetzeari buruzko txosten bat udal-teknikari batek sinatu zuela, eta ez kontu-hartzaitzak.

Ugao-Miraballesko Udalak, 2007ko apirilaren 24ko osoko bilkuran, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 92.3 artikulua aplikatuz, kontu-hartzaileari dagozkion kontabilitate- eta bilketa-funtzioen administrazio-erantzukizuna ekonomialari lanpostuaren titularrari ematea erabaki zuen.

Akordio hori betez, udal-ekonomistak egin eta sinatu zuen erakundearen egonkortasun-txostena.

Epaitegiak berak, IV. Atalean, txosten hori aipatzen duenean, esaten du "kontu-hartze funtzioak betetzen dituen teknikariak" egin duela.

Hala ere, 2018ko martxoaren 16ko 128 Errege Dekretua indarrean sartzean, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, Lanpostuen Balorazioak eta Idazkaritza honen 2018ko uztailaren 6ko eta 2019ko apirilaren 23ko txostenek azpimarratzen duten bezala, honako hauek egin beharko lituzke Ugao-Miraballesko Udalak:

- Idazkaritza bigarren kategoriakoa sailkatzea.
- Idazkaritza eta kontu-hartzaitzako bi lanpostu independente izatea, gaikuntza nazionalako toki-administrazioko funtzionarioentzat erreserbatuak, eta, gainera, diruzaintza izeneko lanpostu bat.



III.4 KONTRATAZIOA ETA A.12 ERANSKINA

1.- Adierazten da UDIARRAGAN ETA ARANDIAN BIDE-ZORUAK ETA OINEZKOENTZAKO GUNEAK BERRITZEKO obren espedientean ez dagoela jasota kontu-hartzaitzaren alde aurreko fiskalizaziorik, ez eta kontratazioaren justifikazio-memoriarik ere.

Hori ez da horrela; izan ere, espedientean kontratazioaren justifikazio-memoria eta kontratazioaren fiskalizazioa agertzen dira, eta, horren erakusgarri, honako kopia hauek erantsi dira:¹

- Udal aparejadorearen memoria baloratua, 2019ko otsailekoa.
- 2019ko uztailaren 8ko probidentzia.
- Kontu-hartzaitzaren txostena, 2019ko uztailaren 8koa.
- Kontu-hartzaitzaren aurretiazko fiskalizazio-txostena, 2019ko uztailaren 8koa.
- Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna betetzea, 2019ko uztailaren 8koa.
- Gastu-baimena, 2019ko uztailaren 8koa.
- Barne-kontrolako fitxa, 2019ko urriaren 10ekoa.

2.- EL JARO ETA ARANDIAKO KIROL INSTALAZIOETAKO ZERBITZUAK

2.1 Zerbitzu horiek berriro esleitu ditu Udaltzatzen, 2021eko otsailaren 23an egindako ohiko bilkuran. Besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

"Esleipen-egintzaren etendura KENTZEA eta, beraz, Ugao Kirolak ABEE enpresari ESLEITZEA Ugao-Miraballes udalerriko El Jaroko kirol-instalazioen eta Arandiako estali gabeko igerilekuen zerbitzu publikoa kudeatu, ustiatu eta kontserbatzeko zerbitzuaren emakida-kontratua, hiru urteko egikaritze-eperako, beste bi urtez luza daitekeena; 2021eko apirilaren 1etik aurrera."

2.2 Herri Kontuen Euskal Epaitegiak honela dio:

"2019ko ekitaldian, Udalak kontratu bati zegozkion gastuak egin zituen (2 A.12 espedientea), 106.722 euroan, beste lizitazio baterako deialdirik egin gabe."

2019ko ekitaldirako lizitazio-deialdia egon zen, baina lizitaziorik ez, Alkatetzaren martxoaren 6ko 96/19 Dekretuan jasotzen den bezala.

¹ Aurkeztutako aurretiazko kontu-hartzaitzako eta fiskalizazioko txostenak ez ditu sinatu toki-erakundeko organo kontu-hartzaileak (Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen hirugarren xedapen gehigarria, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora). VII. eta XVII. eranskin modura aurkeztutako agiriak ez zaizkio aipatutako Legearen 116.4 artikulua agindutakora egokitzen.



Nolanahi ere, 2019an, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera gauzatu zen kontratua, eta, zerbitzu-kontratuen iraupenari dagokionez, honako hau arautzen du:

“Aurreko apartatuetan ezarritakoa gorabehera, kontratuaren mugaegunean ez denean kontratu berririk egin, kontratistak eman beharreko prestazioaren jarraitutasuna bermatzen duenik, kontratazio-organoarentzat aurreikusten ezinezkoak ziren eta adjudikazio prozeduran gertatu diren gertakarietatik heldu diren gorabeheren ondorioz, eta interes publikoko arrazoiak daudenean prestazioa ez eteteko, jatorrizko kontratua luzatu ahalko da kontratu berria egikaritzen hasten den arte eta, nolanahi ere, gehienez ere bederatzi hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe; horretarako baldintza izango da, betiere, kontratu berrirako lizitazio-iragarkia jatorrizko kontratua amaitzeko data baino gutxienez ere hiru hilabete lehenago argitaratu izana”.

2.2.1. Esleipen-prozeduran kontratazio-organoak aurreikusi ezin dituen gertakariak:

2019. urterako lizitazioa bertan behera utzi behar izan zen El Jaro ABEE kontratistaren jarreragatik, nahiz eta Ugao-Miraballesko Udalak ahalegin guztiak egin zituen.

Ondoren, 2020an, koronabirusaren pandemia gertatu zen, eta, orduan, bideragarritasun-azterketa bat egin zen; hori kontuan hartuta, lizitazioari ekin zitzaion, kontratuaren sailkapen berri batekin, zerbitzuak emateari buruzkoa, eta ez zerbitzuei buruzkoa, ordura arte egiten zen bezala.

Lizitazio berri hori egin ondoren, kontratazio-errekurtso berezia jarri zen, eta, beraz, bertan behera geratu zen.

Horren ondorioz, beste lizitazio bat egin behar izan zen, premiaz, kirol-instalazioen kudeaketa esleitzeko, kontratazio-errekurtso bereziaren ebazpenak eta ebazpen honen ondorioek irauten bitartean.

Beraz, Ugao-Miraballesko Udala hau, 2018ko urritik, El Jaro ABEEak eragindako bi arazo konpontzen saiatu da, garai hartan kontratista baitzen. Arazo horiek jarraitu egingo dute 2019an eta 2020an: langileen subrogazioa eta zerbitzuen benetako kostu efektiboa, kontratu horren lizitazioa egitea eragozten baitzuten.

Horren ondorioz, hainbat Alkatetza Dekretu, posta elektronikoko, telefono-dei, kontratistak (El Jaro ABEE) jarritako errekurtsoen ebazpenak, eta hiru lizitazio egin dira 2018tik 2020ra bitartean.

Adibide gisa, eta batzuk aipatzearren (espedientea nahiko handia da):

Alkatetzaren martxoaren 6ko 96/19 Dekretuan, "aurrekariak" atalean, honako hau gogorarazten da:

"2019ko otsailaren 13an, Ugao-Miraballesko Udalaren kontratatzailearen profileen argitaratu zen Ugao-Miraballesko El Jaro eta Arandiako kirol-jarduere zerbitzuei buruzko lizitazioa.

Lizitazio hori egin ahal izateko, behin eta berriz eskatu zaio kirol-jarduera horiek kudeatzen dituen El Jaro ABEE enpresari (2019ko urtarrilaren 22ko idazkia, hainbat



mezu elektronikoa, Alkatetzaren 48/19 Dekretua, 2019ko otsailaren 13koa), bestelako informazioa, bereziki subrogatu beharreko langileei buruzkoa, lehia askea erraztu eta enpresa lizitatuak baldintza berberetan aurkeztu ahal izan daitezten.²

Egungo enpresa esleipendunak, El Jaro ABEEk, ez du eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu, eta ez du argitu zein langile subrogatu behar diren".

Horren guztiaren ondorioz, alkate jaunak honako hau ebatzi du:

- Ugao-Miraballesko El Jaro eta Arandiako kirol-jardueren zerbitzuaren inguruko kontratuaren lizitazio-prozedura etetea.
- Prozedura horren etendura kentzea, El Jaro ABEEk eskatutako dokumentazioa aurkezten denean, bereziki subrogatu beharreko langileena. Jarduketak baldintza-ageria onartzeko unera atzeratuz, informazio zuzena erantsi arte".

Alkatetzaren 2019ko otsailaren 13ko 48/19 Dekretuak honako hau dio:

"2019ko urtarrilaren 22an, zerbitzuaren egungo esleipenduna den "El Jaro ABEEri" idazkia bidali zitzaion, honako dokumentazio hau eskatuz: urteko kontuak, zerbitzu bakoitzaren memoria ekonomikoa eta ibilgetuaren inbentarioa, guztia auditoretza-enpresa independente batek ikuskatuta.

2019ko otsailaren 7an, udal honek langileen egiaztagiriak eskatu zizkion "El Jaro ABEE" enpresari, lanpostuari atxikita zeuden ikusteko eta subrogatu ahal izateko:

- Subrogatu beharreko langileen zerrenda, horietako bakoitza izen-abizenekin identifikatuta.
- Subrogatu beharreko langile guztien nominak.
- Langile guztien lan-kontratuak, INEMen erregistratuta.
- Enpresaren kotizazio-kodean alta emanda dauden langileen txosten eguneratua (ITA).

2019ko otsailaren 11n, udal honek berriro eskatu zuen dokumentazio hori, bai eta langile jakin batzuei buruzko argibide batzuk ere.

"El Jaro ABEE" enpresak zerbitzuaren dokumentazio ekonomikoa eta langileen datuak bidali dizkio Udalari 2019ko otsailaren 4an eta 8an, posta elektronikoz.

